

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

**KAZETARITZAKO GRADUA**

2022-23 IKASTURTEA

**HALA BEDI: ATE BAT JAKINTZARI**

**Memoria**

EGILEA: Maixa Utrera Puelles

ZUZENDARIA: Imanol Murua Uria

Gasteiz, 2023ko maiatzaren 16a

Hala Bedi: Ate bat jakintzari

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisisia ilustratze aldera”

## Aurkibidea

<b>Gaia eta ikuspegia.....</b>	<b>1, 2</b>
Gaia.....	1
Ikuspegia.....	1
<b>Metodologia.....</b>	<b>2-15</b>
Aditu bilakatu.....	2
Kontaktuen zerrenda eta harremanetan jartzea.....	4
Elkarrizketak egitea.....	11
Erredakzioa.....	15
<b>Ondorioak.....</b>	<b>17-18</b>
Gaiaz maitemintzea, ezinbestekoa.....	17
Aurreiritziak lagun bezain etsai.....	17
Zenbat eta lotsagabeago, hobe.....	18
Ez etsi, eutsi.....	18
<b>Iturri dokumentalak.....</b>	<b>19-21</b>
Liburuak edo liburuetako kapituluak.....	19
Aldizkarietako artikulak.....	19
Bideoak.....	20
Audioak.....	21
Webguneak.....	21
Albistek.....	21
Bestelako dokumentuak.....	21

## Gaia eta ikuspegia

### Gaia

Gradu Amaierako Lana Hala Bediri buruz egiteko arrazoi nagusiak bi izan dira. Lehena, hasieran aukeratutako gaiari (Martxoak 3) buruzko lana egitea baino bideragarriagoa zela—martxoak 3koari buruz lan askoz gehiago baitaude—; eta, bigarrena, Hala Bedi beti izan dela erreferentzia bat niretzako. Ez da lehen aldia hari buruzko lan bat egiten dudala, eta, beharbada, ez da azkena izango.

Gasteizen ezagunak dira irratia eta bere historia gatazkatsua; baina benetan Hala Bediren atzean dagoen lana eta erresistentzia ezagutzen dutenak gutxi dira. Nik neuk ere gutxi nekien gaiari buruz. Horregatik, eta bere 40. urteurrena aurten izango dela aintzat —eta aitzakitza— hartuta, uste dut Hala Bediren historia herriari ezagutarazteko une aproposa izan daitekeela.

### Ikuspegia

Urteurrena dela aprobetxatuz, erreportajea ikuspegi erretrospektiboarekin egitea erabaki nuen. Iturriak ezagutu ahala, ordea, iragana aztertzeaz gain, oraina eta etorkizuna ondo behatzea funtsezkoa izango zela konturatu nintzen. Izan ere, irratia hasierako urteak izan ziren (nire ustez) bizitzeko zirrargarrienak; baina, Hala Bediren oraina eta etorkizuna erronka askoz handiagoa dira.

Julen Mendizabalek azaldu zidan bezala, «inboluzio ideologiko» handia sufritzen ari da Euskal Herria azken urteotan. Beraz, Hala Bediren eta irratia libreen historia ezagutzea bezain garrantzitsua da gaur egungo egoera zein den jakitea. Nire ustez, hasierako egoera baino askoz mamitsuagoa eta konplexuagoa baita oraingoa.

Irratiaz kronologikoki mintzatu naizen arren, nire asmoa erreportaje ahalik eta sakonena egitea izan da. Irakurlea hausnartzera eraman dezan erreportaje bat; kritikoa, nolabait. Hau da, ez dut kronika itxurako erreportaje bat egin nahi izan; herri mugimendu baten ibilbidea eta erronkak nolakoak diren azaldu baizik. Hasieran Hala Bediren arazo nagusia

Hala Bedi: Ate bat jakintzari


errepresioa zen; baina horrek herri mugimenduak hamar aldiz indartsuago bilakatzen zituen. Orain, aldiz, herri mugimenduen indarraren gainbehera da mehatxu nagusia. Bi errealitate hauen arteko alderatzearen bidez, hain zuzen, gustatuko litzaidake kritikarako bidea irekitzea.

## Metodologia

GRALA egiteko metodologiak lau urrats izan ditu: 1) Aritu bilakatzea, 2) kontaktuen zerrenda egitea eta hauekin harremanetan jartzea, 3) elkarrizketak egitea eta 4) erredakzioa. Hala ere, urrats bakoitzaren barruan azpiurrats asko egon dira, noski.

### Aritu bilakatu


Gaian aritu bilakatzeko eman nuen lehenengo urratsa liburutegi fisiko zein digitaletan sartu eta liburu, lan eta dokumental<sup>1</sup> ugari irakurtzea eta ikustea izan zen. Irakurri bitartean, datu esanguratsuenak nire koadernoan apuntatu nituen, geroago, ideia nagusiekin mapa kontzeptual handi bat egiteko. Hainbeste irakurri ostean nahiko nahasita nengoen; eta bildutako ideia guztiak antolatzeko metodo oso eraginkorra izan zen. Baita erreportajea nondik hasiko nuen erabakitze ere.



1.1., 1.2. eta 1.3. Irudiak: prozesu honetan irakurritako liburu batzuk

<sup>1</sup> Iturri guzti hauek memoriaren amaieran zehaztuta daude, 'Iturri Dokumentalak' atalean.

# Hala Bedi: Ate bat jakintzari



1.4. eta 1.5. Irudiak: koadernoan hartutako oharrak



- Horia:** Iturri protagonista posibleak
- Laranja:** Oztopo eta gatazka esanguratsuak
- Arrosa:** Testuingurua ulertzeko gakoak
- Berdea:** Irratiarekin lotutako ekintza eta mugimenduak
- Urdina:** Data esanguratsuak

1.6. Irudia: Mapa kontzeptuala

Abenduan hasi nintzen «aditu» bilakatzen, baina urtarrila eta otsaila ere behar izan nituen benetan nahi nuen guztia irakurri eta ikusi ahal izateko. Lan batek beste liburu batera eramaten ninduen; liburuak ez dakit zenbat dokumental ikustera; eta dokumentalak beste horrenbeste albiste irakurtzera. Horrek —beste kanpo faktore batzuekin batera— nire egutegia hankaz gora jarri zuen, eta martxoa arte ezin izan nintzen hurrengo fasera igaro.

## Kontaktuen zerrenda eta harremanetan jartzea

Iturri dokumentalei esker iturri protagonista eta lekuko posibleen zerrenda osatu nuen. Irratiaren ideien aldekoak ez ezik, irradiaren «aurkakoak» ere elkarrizketatzea garrantzitsua izango zela pentsatu nuen. Hala ere, iturrien zerrenda luzeegia zen erreportaje idatzi baterako, eta baheketa txiki —erraldoi— bat egin behar izan nuen. Azkenean, eta aldaketa askoren ostean, hauxe izan zen emaitza.

## Kontaktuak

### ➤ Hala Bedi Irratia

- **Gaur egungo kideak/langileak**
  - ***Hizpidea* (magazina)** Julen Mendizabal Elezkano

**Martxoak 9.** *Hizpidea*-ko korreora idatzita ezagutu nuen Julen Mendizabal, eta inongo arazorik gabe eman zidan bere zenbakia. Proiektua aurkeztu nionean, bere aurreneko erantzuna asteleheneko asanbladan komentatuko zuela izan zen. «Beti egiten dugu horrela kasu hauetan», esan zidan.

Bi profil ezberdin behar nituela azaldu nion: batetik, gaur egun irratian zebilen jendea; eta, bestetik, Hala Bediren hastapenetan parte hartu zuena.

**Martxoak 13.** Zin egin zidan bezala, astelehen gauean eman zidan asanbladaren berri Julenek: «Asanbladan zure proposamenaren inguruan aritu gara. 80. hamarkadako galderak erantzun ditzakeen norbait aurkitzeko konpromezua hartu dut. Horretarako denbora apur bat beharko dut. Momentuz galdera erantzuteko prest, 3 Kortxeako Okantza eta Hizpideako ni gara». Azkenean Okantzarekin ezin izan naiz harremanetan jarri, ordutegien erruz.

*Hizpidea*-ko Julen ez ezik, nire ideia *Suelta la Olla*-ko —eguerdiko magazina— eta *Uhintifada*-ko —Palestinari buruzko irratsaioa— kideren bat elkarrizketatzea zen; baina, asanbladan guztiak egon ziren, eta ez zuten parte hartu nahi izan. Hasieran bi iturri posible horiengatik gehiago borrokatu behar izan nuela pentsatu nuen; baina, geroago, konturatu nintzen iturri gehiegi izango zirela, eta Julenen ikuspegi oso antzekoa eskainiko zidatela.

○ **Kide ohiak**

- ***Adiós Penelope, adiós (saio feminista)*** Elo Mayo
- ***A desalambrar (saio internazionala)*** Alaitz Amundarain\*
- ***El quid de la cuestión (debate politikoa)*** Juan Ibarondo\*<sup>2</sup>

Hala Bediren 30.urteurrenaren dokumentala ikusi eta gero irratiko kide ohien artean 20 elkarrizketatu posible inguru zerrendatu nituen. Zerrendatik nortzuk aukeratu erabakitzea zaila izan zen hasieran, baina, pixkanaka, kontaktuen sarea ehuntzen joan nintzen.

**Martxoak 12.** Alaitzekin harremanetan jartzeko bere ikastetxeko epostara mezu bat bidali nuen. Armentia ikastolan (Gasteiz) lan egiten du, eta nire hainbat lagunak irakaslea izan da. Datu garrantzitsuegia ez bada ere, horrek konfiantza eman zidan harekin harremanetan jartzeko —oso ondo hitz egin baitzidaten hari buruz—. Bere zenbakia Gmail bidez eman zidan, eta erraz adostu genuen elkarrizketarako data.

Alaitz Amundarain Hala Bedin 2006tik 2016ra lanean ibili zen *A Desalambrar* programan; eta, gaur egun, kolaborazioak egiten ditu noizbehinka. Irratiaren aro ezberdinak ezagutu izanak iturri oso interesgarria bilakatzen du; gizartearen indibidualizaziorako inertzia gertu-gertutik ezagutu baitu.

---

<sup>2</sup> (\*) Juan Ibarondok eta Alaitz Amundarainek kolaborazioak egiten dituzte gaur egun, nahiz eta kide ohien kategorian jartzea aproposagoa iruditu zaidan.



**Martxoak 13.** Elo topatzeko jarraitutako bidea luzeagoa izan zen. Irratiaren hasiera-hasierako urteetan ibili zen Hala Bedin. LinkedIn-en bere erabiltzailea aurkitu nuen, baina ez zegoen harekin harremanetan jartzeko modurik. Bertan ‘Berdintasun Proiektuak’ entitatearen idazkaria zela ikusi nuen, eta proiektuetako bat Laia Eskola deitzen zela. Beraz, hura Interneten bilatzea erabaki nuen. Minutu batzuk ikertzen ibili ostean, Laia Eskolako epostara idatzi nuen, Elorean kontaktua eskuratzeko esperantzarekin. Zorionez, arazorik gabe eman zidaten bere helbide elektronikoa eta telefonoa. WhatsApp bidez berarekin harremanetan jarri nintzen, eta pozik onartu zuen elkarrizketa.

Zergatik Elo Mayo? Bada, bi arrazoiengatik. Batetik, 30. urteurrenaren dokumentalean Hala Bediren hasierako urratsak ondo ezagutzen zituela ikusi nuelako. Eta, bestetik, 30. urteurrenaren liburuan irradiaren izaera feministari buruz hitz egiten duelako<sup>3</sup>; eta horri buruz galdetzeko nahia piztu zitzaidalako.

**Martxoak 17.** Juanen zenbakia, bere aldetik, Hizpideako Julen Mendizabali esker eskuratu nuen. Lehen aipatu dudan legez, Julen Hala Bedirekin harremanetan jarri nintzenean ezagutu nuen lehenetariko pertsona izan zen; eta berarekin elkarrizketa bat eskaintzeaz gain, 80ko errepresioa bizi izan zuen kolaboratzailearen bat topatzeko konpromezua hartu zuen. Esan eta egin; hari esker hitzartu nintzen Ibarrondorekin.

Juan Ibarrondo, Elo bezalaxe, hasieran ibili zen irratian; eta gaur egun, Alaitzek bezalaxe, kolaborazioak egiten ditu. Dokumentalari esker izan nuen horren berri, baina Juan aurretik ezagutzen nuela aitortu behar dut. Etxean berak idatzitako hainbat liburu ditut;

---

<sup>3</sup> ‘30 urte kolpez kolpe’: *Mugimenduaren barnean, emakumeen sektore batetik bederen, kontrako ahotsik ere izan zen. Elok azaltzen du haien iritzia: «Kritika ez zen Ama Birjina masturbatzen agertzen zelako: sexua erreklamo gisa azaltzen zituen iragarkiak kritikatzeko baigenituen, alternatiboena ezin zitekeen izan “berdina baiina beste ikuspuntu batetik”. Onartu behar dugu lehen puritanoagoak ginela. Estabaida horretan denak kontra genituen, denei gustatzen baizitzaieen kartela: zenbat eya obzenoagoa eta antiklerikalagoa, hobe».*

tartean, Martxoak 3ko gertaerei buruzko bat (*'Recuerdos de marzo'*), GRALaren gai aukeraketan nire lehenengo aukerari buruzkoa, hain zuzen ere. Ez galdetu zergatik, baina horrek pertsona egokia elkarrizketatzen ari nintzela jakiteko balio izan zidan.

➤ **Orduko gobernua**

○ **Gobernadore zibilak**

- Alicia Izaguirre (2014an zendua)
- Cesar Milano

Ikuspegi oso ezberdina eskainiko zidan, ordea, Cesar Milanok. Milano Gasteizko gobernadore zibila izan zen 80ko eta 90eko hamarkadan —Alicia Izaguirreri lekukoa hartu zion— eta Hala Bedirekin etengabeko borrokan bizi zen. Izaguirrek irratiarekin askoz harreman okerragoa izan zuen; eta hura elkarrizketatzea zen nire lehenengo aukera, baina hura Interneten bilatzean 2014an zendu zela ikusi nuen.

La Rioja | Logroño Comarcas ▾ Sucesos Esqueletas La Hemeroteca Tal como era La C

## Fallece Alicia Izaguirre, icono del PSOE de la Transición

La exdirigente socialista murió este martes en Logroño, a los 81 años



2.1. Irudia: Alicia Izaguirreren heriotzaren albistea, La Rioja egunkarian

Amore ematea aukeren artean ez zegoenez, Milanorekin harremanetan jartzea erabaki nuen. Ez zen erraza izan. Hura topatzeko arazo nagusia 76 urteko edozein pertsona bilatzeko dagoen arazo bera da: Interneten ez dago ia bere arrastorik. Hala izanik, hari buruz Google-en aurkitu nuen informazio «garaikideena» Roberto Gris kazetariak 2015ean hari egindako elkarrizketa literarioa izan zen.



**El Día de Valladolid**

VALLADOLID PROVINCIA REGIÓN ESPAÑA MUNDO DEPORTES OPINIÓN PUNTO Y APARTE AGENDA GALERÍAS

PROVINCIA

### El gobernador de La Esgueva

R. GRIS - jueves, 24 de diciembre de 2015

César Milano fue Gobernador Civil del País Vasco y delegado del Gobierno en Navarra · Su pueblo, Villanueva de los Infantes, donde realmente se siente feliz

2.2. Irudia: Roberto Grisek Cesar Milanori egindako elkarrizketa

**Martxoak 15.** El Día de Valladolid egunkariaren emailera mezu bat idatzi nuen, Roberto Gris topatzeko asmoz. Bera zen nire azken aukera, eta bakarra. Robertok berak erantzun zidan mezuari, baina Milanoren kontaktua ez zuela esan zidan.

Mezuaren amaieran baina, Milanoren herriko udalera deitzea aholkatu zidan: «Tal vez en el Ayuntamiento de Villanueva de los Infantes, pueblo de Valladolid<sup>4</sup>, de donde es él puedas encontrarlo».

Roberto Grisen aholkua jarraituta, arratsaldean bertan deitu nuen Villanueva de los Infanteseko udalera. Alkateak erantzun, eta Milano bere senide baten aitabitxia zela azaldu zidan: «No tengo su

<sup>4</sup> Villanueva de los Infantes Ciudad Realen dago, ez Valladoliden; baina, errakuntzak gorabehera, aholku ona izan zen Roberto Grisen.

número pero suele venir por aquí. En cuanto lo vea le digo que te llame».

Deia minutu gutxiko une bat izan zen; baina zirrara handiz bizi izan nuen momentua. Jendearen laguntzeko prestutasuna eta nire setarekin irteteko nahia elkarrekin oso ondo funtzionatzen zuten bi faktore bilakatu ziren.

**Martxoak 16.** Orduak eman nituen urduri deia noiz iritsiko zain. Errepotajeari egiazkotasuna eta inpartzialtasuna emango zion Milanok, eta ezin nuen harekin hitz egiteko aukera galdu. Zorionez, hurrengo egunean bertan deitu zidan Cesarrek. Elkarrizketa prest egiteko zegoela, erretiratu zegoenez denbora pasa gisa egingo zuela.

Aitortu behar dut hasieran ez nintzela berarekin guztiz zintzoa izan. Nire GRALa Trantsizioko hedabideei buruzkoa zela esan nion, ‘Hala Bedi’ entzutean berehala ezezkoa emango zidanaren beldur. Hala ere, galderak aurretik bidaltzeko eskatu zidan, garai hura «guztiz ahaztuta» zuelako. Beraz, galderak aurretik bidaltzerakoan, zintzotasunaren balantza orekatu nuela uste dut; galderaren bat saihestu nahi izatekotan, aurretik esateko aukera izan baitzuen.

➤ **Arrosa Sarea**

○ **Koordinatzailea**

■ **Aitziber Zapirain Etxaniz**

**Apirilak 4.** Hala Bedi Arrosa Sareko kidea dela kontuan hartuta, Aitziber Zapirainek ikuspegi interesgarria emango zidala pentsatu nuen. Azken batean, Hala Bedi bezalako irrati komunitario eta librean elkarlana sustatzen du Arrosak; eta Hala Bediz haratago doan irrati osasuna ezagutzeko lagungarria izan zitekeen. Email bidez harekin harremanetan jarri nintzen eta bere telefonoa pasa zidan; komunikazioa errazteko asmoz.

➤ **Bestelako iturriak**

○ **Aditua**

■ Txema Ramirez de la Piscina

**Apirilak 4.** Txemarekin harremanetan jarri aurretik, proiektuaren lehenengo fasean ('Aditu bilakatzea') dagoeneko bere artikulu —oso lagungarri— bat irakurri nuen: '*País Vasco, laboratorio de comunicación alternativa*'. Honek Txema zuzenean elkarrizketatzeko nahia piztu zidan; Hala Bediri eta komunikabide alternatiboei buruzko ikerketa sakonak egin dituen ikerlaria baita. Azkenean, hala egin nuen.

Bere zenbakia unibertsitateko webgunean eskuratu nuen; eta telefonoz deitu nionean erantzun ez zidanez, WhatsAppen bidez mezu bat idatzi nion. Aste Santua hastear zegoenez, aurrez aurre elkartzeko denborarik ez zuela esan zidan; eta nahi izanez gero, galderak emailez erantzungo zizkidala.

○ **Ezezkoa**

■ **Eguzki Irratia**

**Martxoak 13.** 80etako irrati librean egoera ezagutzeko berebiziko garrantzia zuen iturri bat Iruñeko Eguzki Irratiarena zen. Hala Bediren historia antzekoa baina aldi berean oso ezberdina izan zuen, eta oraindik bizirik jarraitzen duen irrati libre zaharrena da. Horregatik, email bidez haiekin harremanetan jartzea erabaki nuen.

**Martxoak 21.** Zoritxarrez, handik aste batera ezezkoa eman zidaten: «Muchas gracias por tu interes en nuestro colectivo. Por distintos motivos, ahora mismo no podemos atender tu petición. Ánimo con tu trabajo de fin de grado y a seguir bien».

## Elkarrizketak egitea

Elkarrizketak martxoaren azken asteetan eta apirilaren hasieran egin nituen. Kronologia nolakoa izan den errazago ikusteko, hurrengo taulan hitzordu bakoitza non eta noiz izan zen adierazi dut.

Iturria	Noiz	Non
Juan Ibarondo	Martxoak 20	Telefonoz
Julen Mendizabal	Martxoak 21	Hala Bedi irratian
Alaitz Amundarain	Martxoak 23	Hala Bedi tabernan
Cesar Milano	Martxoak 29*	Telefonoz
Elo Mayo	Martxoak 30*	Otxanda tabernan
Txema Ramírez de la Piscina	Apirilak 5	Emalez
Aitziber Zapirain	Apirilak 13	Telefonoz

2.3. Taula: Hitzorduen egunak eta lokalizazioak

(\*) Cesarrekin aurreko egunean geratu nintzen, 28an, baina azken orduko aldaketa batengatik 29ra pasa behar izan genuen. Elorekin berdina gertatu zitzaidan, baina 24tik 30era.

### Juan Ibarondo

Lehenengo elkarrizketa Juan Ibarondorena izatea oso lagungarria izan zen. Inork baino hobeto ezagutzen du Ibarondok irratia, eta beste inorekin hitz egin aurretik haren testigantza jasotzeak erreportajearen jomuga zein izango zen erraztu zuen.

Galderak bi bloketan banatu nituen. Batetik, Hala Bediren ingurukoak (orokorrak), eta, bestetik *El quid de la cuestión*-i buruzkoak. Erantzun oso mamitsuak eman zituen bai lehenengoan, bai bigarreanean, baina gehien gustatu zitzaidan elkarrizketaren zatia bigarrena izan zen. 1980eko hamarkadan ideologia ezberdineko pertsonen artean tentsio handia zegoela azaldu zidan Ibarondok; baina aldi berean elkarri entzuteko gai zen leku bat sortzeko gai izan zirela. Gaur egun, berriz, identitate aniztasun handia egon arren, geroz eta baztertzaileagoak garela aitortu zidan gero.

Hala Bedi: Ate bat jakintzari

Gai hori atera zenean, une batez GRALetik aldendu ginela sentitu nuen. Denboraz estu nembilen nire bidetik ateratzeko, baina elkarrizketa hain zen interesgarria non ezin izan nuen moztu, eta azkenean ordu erdi inguru egon ginen hitz egiten.

### **Julen Mendizabal**

Mendizabalekin hitz egitea oso erraza eta eroso izan zen. Gizajoak gripeak jota egin zuen elkarrizketa, baina erabat argi eta sendo adierazten zituen ideiak. Gaur egungo Hala Bedi ezagutzeko funtsezko pieza izan da, eta, gainera irratia barrutik nolakoa zen erakutsi zidan. Txorakeria dirudi, baina elkarrizketa irratian bertan egiteak irratia parte sentiarazteko balio izan zidan. Gaiaz gehiago «maitemintzeko».

Elkarrizketa luzeena izan zen, baina azkarren pasa zitzaidana. Asko laburbilduz, Mendizabalek behar nuen informazioa eman zidan, eta espero nuena baino askoz interesgarriagoa. Hainbat arrazoiengatik uste nuen ez zela hainbeste sartuko militantziaren eta politikaren kontuan, baina ikuspegi oso kritikoa eman zidan, eta erreportajearen alderik kritikoa bideratzeko gakoak.

Erreportajeko iturri guztiak izan dira oso garrantzitsuak, baina, dudarik gabe Julen izan da gehien lagundu nauen pertsona. Elkarrizketaz gain, Ibarrendoren kontaktua, Garoñako audioa<sup>5</sup> eta irradi libreentzako lege berriaren inguruko dokumentua<sup>6</sup> bidali dizkit. Ibarrendoren kontaktua beharbada hiru segundutan lortu zuen, baina audioa eta dokumentua bilatzeko denbora hartzea mesede bat baino askoz gehiago da. Lanaren zati handi bat hari esker egin ahal izan dut.

### **Alaitz Amundarain**

Alaitz Amundarainekin elkarrizketa laburragoa izan zen, baina elkarrizketa «amaitu» eta osteko solasaldia izan zen interesgarriena. Prestatutako galderak amaitu eta gero gizartearen inertzia berrietaz hausnartzen egon ginen: indibidualismoa, herri mugimenduetako belaunaldien arteko oinordetza arazoak... Agian erreportajeaz ez dut

---

<sup>5</sup> *Suelta La Olla*-k Garoñako gas ihes faltsua iragarri zuen eguneko grabazioa, 2004ko ekainaren 22an.

<sup>6</sup> Dokumentazio zehatz bat aurkezten ez duten irradi libre guztiak ilegal deklaratu dituzte legeak, PSOE eta Podemosek bultzatuta.

Hala Bedi: Ate bat jakintzari

Amundarain behar bezain beste aipatu; baina irriaren etorkizunak dituen mehatxu eta erronkak ulertzeko informazio oso garrantzitsua eman zidan.

Elkarrizketa egin genuenean arazo bakarra sumatu nuen: zarata. Egia da taberna batean elkartzearen alde txarretako bat dela —aurreikusitako behar izan nuena—, baina, bi pertsona besterik ez ziren Hala Bedi tabernan une hartan, eta egundoko buila egiten ari ziren. Badakit askatasun osoa dutela oihuka ibiltzeko, baina elkarrizketa bat egiten ari ginela ikusita ere ez ziren gelditu.

Hala ere, elkarrizketatu ditudan pertsona gehienak kazetari lanetan ibili direla nabari da, grabagailura hurbildu eta hura uneoro piztuta egoteaz arduratu baitira beti.

### **Cesar Milano**

Cesarren kasua berezia izan zen. Gizon oso atsegina izan zen nirekin, baina hari buruz irakurri nuen guztiak nolabaiteko gaitzespena sorrarazi zidan. Pelikula honetan «gaiztoa» izango zenaren sententzia nuen, baina elkarrizketa ahalik eta modu objektiboenean planteatzea erabaki nuen. Ez nuen elkarrizketaren helburua nire aurreiritziak konfirmatzea bilaka zedin nahi. Horren ordez, elkarrizketak istoriaren beste aldeak ezagutzen lagundu behar zidan, besterik gabe.

Zoritxarrez, elkarrizketa egiterakoan, nire buruan «gaiztoaren» sententzia hura berragertu zen. Ez zen busti, eta bustitzen zenean talde zehatzei buruz nola hitz egiten zuen ez zitzaidan gustatu. Irratia inoiz itxi ez zuela esan zidanean, amorrua eman zidan. Berezik adierazpen honetan erabili zuen tonuagatik.

*«¿Los gobernadores civiles de la época cerrábamos emisoras? No me consta haber cerrado ninguna»*

Elkarrizketaren amaieran, aitzitik, elkarrizketa eskaini zidanean ezagutu nuen gizon atsegin hura izan zen berriro, eta GRALa bikain ateratzea opa egin zidan.



## **Elo Mayo**

Eloekin elkarrizketa lagun batekin izan dezakedan elkarrizketa baten antzekoa izan zen. Otxanda tabernan elkartu ginen, eta egin behar nizkion galderak egin arren, bi lagunentzako solasaldia ematen zuen. Emakume zoragarria da Elo, emakumeengatik asko egin duena eta egiten duena. Hala Bediren sorrerari buruzkoak kontatu zizkidan, Ibarondok bezala; baina, irratiko emakumeen papera nolakoa zen azaltzean, elkarrizketa korapilatzen hasi zen.

Elo oso kritikoa izan zen 80etako Hala Bediko gizonezkoekin. Lagun asko zituen irratan, baina horrek ez dio urte haietako genero desberdintasuna ikustea eragotzi. Elkarrizketaren zati hau erreportajearen sartzea oso garrantzitsua zela pentsatu nuen. Izan ere, Hala Bediri buruzko erreportaje batean bere alde onak nabarmentzeaz gain, bere alde txarrak zeintzuk ziren/diren azalartzea ezinbestekoa dela uste dudalako. Horrek kazetaritzaren deontologiako bi funtsezko printzipio ematen dizkio testuari: neutraltasuna eta inpartzialtasuna.

## **Txema Ramirez de la Piscina**

Aurreko fasean aipatu dudana bezala, Txemari elkarrizketa eskatu aurretik haren testu bat irakurri nuen. Elkarrizketa aurrez aurre egiteko arazoak izan genituen, emailez erantzun zizkidan galderak. Aurrez aurre elkartzeari nahiago nuela? Bai. Denboraz estu eta larri ibilita aukera onena izan zela? Nire ustez, ere bai.

Hasieran ez neukan argi adituaren adierazpenak non sartu, baina Imanol Murua tutoreak eman zidan Txemaren elkarrizketa zatidura bezala erabiltzeko ideia. Erreportajearen azken bertsioa ikusita, ideia paregabea izan zela uste dut.

## **Aitziber Zapirain**

Aitziber Zapiraini azken orduko elkarrizketa bat egin banion ere, ez zen azken orduan erabakitako iturria izan. Hasiera-hasieratik pentsatu nuen Arrosako kide bat elkarrizketatzea. Martxoan iturri guztiekin harremanetan jartzen hasi nintzenean, Arrosa

Hala Bedi: Ate bat jakintzari

Sareko *Zebrabidea* programakoei idatzi nien —behin baino gehiagotan—, baina ez zidaten erantzun. Arrosako norbait elkarrizketatu behar nuela argi neukan, eta, azkenean, nor koordinatzailea baino hobe.

Hasiera batean Donostian geratzea adostu genuen, baina Aitziber gaixotu egin zen, eta azkenean telefonoz —Hendaiatik— eskaini zidan elkarrizketa. Nahiko laburra izan zen —semea atzetik zarataka zuen—, baina beharrezko informazioa eman zidan, eta oso modu atseginean gainera.

## Erredakzioa

### Transkripzioak

Erredaktatzen hasi baino lehen, transkripzioak egitea lan nekeza izan zen. Zorionez, hiru elkarrizketa besterik ez nituen euskaratu behar izan (Ibarrondorena, Mayorena eta Milanorena); eta, horrek prozesua arintzen lagundu zuen.

### Zatidurak

Zatidurak erreportajearen barruan egon arren, erreportajearen ikuspegitik pixka bat aldentzen saiatu naiz. Osagarriak izan behar ziren, noski, baina ez errepikakorrak.

Lehenengo zatiduraren ideia, lehen esan dudan bezala, Imanol Murua tutoreak eman zidan. Txema Ramirez de la Piscina elkarrizketatu behar nuela argi neukan, baina, haren aipuak iturri protagonistekin tartekatzea zaila izango zela agerikoa zen. Beraz, haren ikuspegia eta hausnarketak zatidura batean nabarmentzea oso ideia ona iruditu zitzaidan.

Bigarren zatidura Garoñako emisioari buruz egitea dokumentazio fasean bururatu zitzaidan. Erreportaje nagusian horri buruz hitz egin ez arren, elkarrizketatu ia guztiakin mintzatu nintzen gaiari buruz, eta bakoitzak bere ikuspegia eman zidan.

Hasieran ez neukan oso argi funtzionatuko zuen, erreportajearen ikuspuntutik asko urruntzen zelako. 2004an *Suelta la Olla*-ko kideek egindakoa oso kasu konkretua da, eta beraz, lekuz kanpo gera zitekeela pentsatu nuen. Baina, azkenean, erreportajea idazten ari

## Hala Bedi: Ate bat jakintzari

nintzela, Hala Bedi buruz azpimarratu nahi nuen ideia bat bere eragiteko ahalmena zela konturatu nintzen. Hau da, nire lana ez zela herri irrati txiki eta influentziarik gabeko bati buruz; irrati garrantzitsu eta irismen handiko bati buruz baizik. 1983ko Hala Bedi jende asko mugitzeko gai zen bezalaxe, 2004ko Hala Bedi jende asko ikaratzeko gai izan zen. Eta hori soilik irrati esanguratsu batek izan dezakeen gaitasuna da.

Zatidura Garoñari buruz egitekotan, jatorrizko audioaren adierazpenak erabiliko nituela argi izan nuen hasieratik, baita *The War of Worlds* aipatzea ezinbestekoa izango zela. Julen Mendizabali audioa topatzerik zeukan galdetu nionean ere —ez dakit zergatik— oso argi izan nuen lortuko zuela; eta, azkenean bigarren zatidura horri buruzkoa izatea erabaki nuen.

### **Erredakzioa**

Erredakazio prozesuan, dudarik gabe, lanik zailena ideia guztiak antolatzea izan da. Behin ideiak blokeka antolatuta, idaztea bera nahiko erraza izan da. Ideiak elkarren artean lotzea ere, espero nuena baino sinpleagoa izan da. Hasieran pixka bat nahasgarriak ziren paragrafoen arteko loturak, baina, azkenean, testua ulergarri egitea lortu dudala uste dut. Hitz minimoetara iristea ez da zaila izan. Beharbada hasieran bai, gaia gogoz hartzea kostatu egin zitzaidalako; baina, kontatu behar nuen istorioan murgiltzea lortu nuenean, jariatortasun handiz idazten hasi nintzen.

### **Zuzenketak**

Akats gehienak oharkabean egindako akatsak izan direnez, zuzentzeko errazak izan dira. Errakuntza larriena gai garrantzitsuetan behar adina ez sakontzea izan da. Aurreneko bertsioan ez nuen irrati libreen historia aipatu ere egin; eta, zorionez, tutoreak garaiz ohartarazi zidan horri buruz sakondu behar nuela. Kasu honetan, gaiari buruz asko irakurrita neukan, eta banekien informazio hori non bilatu; baina, egia da akats nahiko larria dela, eta hurrengo batean horrelako hanka sartzeak saihesten ahalegindu beharko naizela.

## Ondorioak

### Gaiaz maitemintzea, ezinbestekoa

GRALa egiterako orduan gehien kostatu zaidana GRALa egiten hastea izan da. Ez da alferkeriagatik izan, denbora faltagatik baizik. Goiz eta eguerdi guztiak autobusean edo klasean igaro ditut —azken lauhileko hau, dudarik gabe, graduako gogorrena izan da—, eta arratsaldeetan polikiroldegi ezberdinetan, saskibaloia irakasten edo jokatzen egon naiz. Asteburuetan klaserik izan ez arren, saskibaloiarri hamar ordu baino gehiago eskaintzen dizkiot astero, eta klaseko lanei lau edo bost.

Denbora falta honek GRALa hurrengo urterako uztea planteatzera eraman ninduen; baina, azkenean, ordura arte izandako ikuspegi ezkorra aldatu eta lanaz maitemintzen saiatu nintzen. ‘Aditu bilakatzea’ atalean ageri den mapa kontzeptuala (1.6. irudia) pixkanaka osatuz, lana erromantizatu, eta pelikula bateko kazetaria izango banintz bezala ikertzen hasi nintzen. Hasieran ez nekien plan honek nahi nituen emaitzak emango ote zituen, baina, zorionez, gaiarekiko interesa handitzen joan zen. Eta honelako lan bat egiteko, motibazioa da izan dezakezun lagunik onena.

### Aurreiritziak lagun bezain etsai

Graduan zehar egin dudan lanik sakonena izan da GRALa, eta erredakzio fasera arte ez nekien erreportajearen egitura nolakoa izango zen. Hala ere, iturriek esango zidatenaren estimazio batzuk banituen. Horrek mesede egin dit batzuetan, baina kalte besteetan.

Elo Mayori buruz nituen aurreiritziek, adibidez, mesede egin didatela uste dut. Espero nuena erantzun zidan, eta espero nuen ikuspegitik. Horrek bere adierazpenak non sartuko nituen erraz jakiteko aukera eman zidan, berarekin geratu baino lehenago.

Cesar Milanorekin, ordea, aurreiritziek kalte egin didate. Hasieratik gizon «gaizto» batekin hitz egiten ari nintzela sentitzen nuen; hala izan ez arren. Eta, azkenean hori oztopo bat izan da esaten zidana benetan sinesteko.

## Hala Bedi: Ate bat jakintzari

Beraz, ondorio honetatik atera dezakedan irakaspen nagusia aurreiritziekin kontuz ibili behar dela da. Lagungarri izan daitezke batzuetan, baina, beste askotan etsai bilakatu daitezke, iturriarekin harremana oztopatuz.

### Zenbat eta lotsagabeago, hobe

Urduritasuna eta tripako mina inoiz desagertuko ez diren elkarrizketak egin baino lehenagoko bi sintoma dira. Nagusiagoa naizenean ere, hala sentituko naizela uste dut. Baina, oraingoan behintzat, harro nagoela esan dezaket, elkarrizketa hasterakoan lotsa hori galdu eta pertsona hurbila izatea lortu dudalako.

Aurrez aurreko elkarrizketak amaitzean ez dut berehala alde egin, eta iturriak hobeto ezagutzeko denbora hartu dut. Une horiek erabakigarriak izan dira erreportajea egiteko, iturriak pertsona bilakatzen baitira grabagailua itzaltzerakoan.

Gainera, Julen Mendizabali bi mesede eskatu dizkiot —Garoñako audioarena eta legearena—, eta, normalean gauzak eskatzeak sekulako lotsa ematen dit. Lan honi esker ikasi dut zenbat eta lotsa gutxiago izan, jendearengan askoz konfiantza gehiago sortzen duzula; eta kazetari batek laguntza eskatzeak ez duela esan nahi kazetari txarra denik.

### Ez etsi, eutsi

Azken ondorio edo irakaspena amore ez ematearena izan da. Oso *hippie* geratzen da horrela esanda, baina uste dut Hala Bedik berak kutsatu didan sentimendua izan dela. Hala Bedik burugogor batzuen «burugogortasunari» esker jarraitzen du bizirik; eta Gradu Amaierako lan hau burugogor baten «burugogortasunari» esker dago amaituta.

## Iturri dokumentalak

### LIBURUAK EDO LIBURUETAKO KAPITULUAK

- *La problemática social y humana de la ciudad de Vitoria.* (1979). Equipo de Investigación Sociológica S.A. (E.D.I.S.S.A)
- *Clases sociales y aspiraciones vascas: euskal gizarte-mailla eta eskurakizunak.* (1978). Cámara Oficial de Comercio, Industria y Navegación.
- *Comunicación para el cambio social.* (2012). I., Chaves Gil
  - *Periodismo y cambio social.* Izquierdo, J.M. (143–146.or.)
  - *Nuevos espacios para los discursos de las ONG.* Sánchez, J.L. (147–154.or)
- *Euskal gizarte-mailla eta eskurakizunak.* (1979). Cámara Oficial de Comercio, Industria y Navegación.
  - *El marco provincial* (174–176.or.)
  - *Niveles culturales* (183–210.or.)
  - *Edad e ideología* (213–227.or.)
  - *El sentimiento autonómico* (231–248.or.)
- *Hala Bedi Irratia: 30 urte kolpez kolpe.* (2013). Hala Bedi.

### ALDIZKARIETAKO ARTIKULUAK

- **Westminster Papers in Communication and Culture aldizkaria** (59–81.or.)  
*Freedom Waves: giving people a voice and turning it up! Tuning into the free radio network in the Basque Country.* (2017). Jason, D., Ion, A. del A., y Arkaitz, L.  
<https://doi.org/10.16997/wpcc.228>

Hala Bedi: Ate bat jakintzari

- **Bidebarrieta: Revista de humanidades y ciencias sociales de Bilbao** (167–193.or.)  
*Irrati libreak. 20 urteko jarduera Euskal Herriko dialetan.* (2001). Txema Uriarte.  
<https://dialnet-unirioja-es.ehu.idm.oclc.org/servlet/articulo?codigo=7420894>
- **Euskal hedabideen urtekaria** (63–71.or.)  
*Arrosa sarea, 20 urte uhinak uztartzen.* (2021). Iraitz Gesalaga Fernandez.  
<https://dialnet-unirioja-es.ehu.idm.oclc.org/servlet/articulo?codigo=8372537>
- **Revista Latina de Comunicación Social** (310–324.or.)  
*País Vasco, laboratorio de comunicación alternativa. Compilación de las experiencias más interesantes de los últimos 30 años.* (2010). Txema Ramírez de la Piscina.  
<https://dialnet-unirioja-es.ehu.idm.oclc.org/servlet/articulo?codigo=3308075>

## BIDEOAK

### Youtube

- *Documental: HALA BEDI | 30 urte kolpez kolpe.* (2015). Hala Bideo.  
<https://www.youtube.com/watch?v=unUukBVc4sU>
- *Izan zaitetz Hala Bedi, egin zaitetz halabelarri!* (2017). Hala Bideo.  
<https://www.youtube.com/watch?v=wK3ZhRENuc4&t=11s>
- *Juan Carlos García Soriguren "Patatas" | arabera.* (2023). Hala Bideo.  
<https://youtu.be/jBFfZVhpOgU>

## AUDIOAK

- *Suelta La Olla*-ren programa historikoa: Garoñako gas ihes faltsua. (2004ko ekainaren 22an). Deskargatzeko pasahitza: HalaBedi2023  
<https://send.vis.ee/download/35f0fae774321719/#a6YTyvxdHjtHIYmHilWpAw>

## WEBGUNEAK

- **Hala Bedi Irratia** <https://halabedi.eus/>
- Eguzki Irratia <https://eguzki.eus/>
- Wikipedia
  - La guerra de los mundos  
[https://es.wikipedia.org/wiki/La\\_guerra\\_de\\_los\\_mundos\\_\(radio\)](https://es.wikipedia.org/wiki/La_guerra_de_los_mundos_(radio))
  - Central nuclear Santa María de Garoña  
[https://es.wikipedia.org/wiki/Central\\_nuclear\\_Santa\\_Mar%C3%ADa\\_de\\_Garo%C3%B1a#Impacto\\_medioambiental\\_en\\_el\\_entorno](https://es.wikipedia.org/wiki/Central_nuclear_Santa_Mar%C3%ADa_de_Garo%C3%B1a#Impacto_medioambiental_en_el_entorno)

## ALBISTEAK

- **El País (1987)**
  - *César Milano, nombrado gobernador civil de Álava*  
[https://elpais.com/diario/1987/04/16/espana/545522414\\_850215.html](https://elpais.com/diario/1987/04/16/espana/545522414_850215.html)
- **El Día de Valladolid (2015)**
  - *El gobernador de La Esgueva*  
<https://www.eldiadevalladolid.com/noticia/zdb33e73f-d056-7e30-c3aa10f6af712965/201512/el-gobernador-de-la-esgueva>

## BESTELAKO DOKUMENTUAK

- *DOCUMENTACIÓN ENCUENTRO RADIOS LIBRES 2022 ZARAGOZA. FARL*  
<https://drive.google.com/file/d/1P30n5WnzgeIBF46MM4Vq2hk3cVt2wGrP/view?usp=sharing>